



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU

**Arkitektura: film mintzairak | Arquitectura: lenguajes filmicos**  
**Hartutako Europa | Europa Tomada**  
**Donostia - San Sebastián**  
**2016ko azaroaren 8tik 29ra arte | Del 8 al 29 de noviembre de 2016**



cristinaenea  
fundazioa

TABAKALERA



# Arkitektura: film mintzairak

Hartutako Europa

*Arkitektura: film mintzairak* hitzaldi, proiektzio eta tailerrekin osatutako urteroko ziklo bat da, eta gure garaiako kategoria handienetako bat hartu nahi du aztergai: *hiria*. Gai hori, beste batzuekin batera –hala nola, *migrazioak*, *ekonomia*, *austeritatea*, *desberdintasunak*, *aldaketa klimatikoa*–, hain bilakatu da zabala, non ezin baita osorik jorratu; Saskia Sassenek dioenez, “..ez gara gai gertatzen ari den txar guztia harrapatzeko”.

Orain dela urte batzuetatik hona, programa honetan hainbat topaketa antolatuta dira tokiko eta nazioarteko pentsalariekin –egile horiek beraiek proposatu dituzten filmak proiektatuz–, hiri-politiketara eta lurraldearen analisi geografikora gogoetazko hurbilpena eragiteko asmoz.

Julio Cortázarren *Casa tomada* –*Hartutako etxea*– ipuinetik abiatuko da aurten gure gogoeta: ikusi ezinezko indarrak familiaren etxeaz jabetzen ari direla sentitzen dute irenek eta garen nebak, eta, indar horiek ezagutzeko gai ez izan arren, azken batean euren etxetik mugiarazi egiten dituzte anai-arrebak, behin betiko bidali eta kalera jaurti arte. Beldurra eta estutasuna dario kontakizunari: Europan gaur egun bizitzen ari den unearekin analogia ugari finkatzera garamatzaten gaitzak dira. La-saitasuneko etorkizuna eraikitze eskubi-deak, bermeak eta prozedurak bazirela jakintzat ematen zen lur eremua egiazko mehatxuarekin dago, eta mehatxatzen duten indarrak, Cortázarren ipuinean ez bezala, identifikatzeko modukoak dira, egun argitan ikus daitezke. Gutxienez azken

bi hamarkadetak albistegietan, kronika politikoetan, literaturan, artean eta pentsamenduan noraezean dabilzan espektoak dira. Austeritateko eta prekarizatze politikoa neoliberalak dira, “krisi-operazioaren” ostean totalitarismo ekonomikoa harrapari arteko noraezean zabalduak. Migrazioen aurka altxatzen ari den nazioarteko segurtasun-kontrola da. Europaren immunitateko blindajea, gerra- eta terrorismo-formako indarkeriazko aurpegiaren aurrean: “kontinente zaharraren” funts arrazista eta koloniala bistarazi duena. Horrez gain, familia eta herri osoak euren lurretatik bidaltzeko prozesua ere bada, hondamendi ekologikoek, eraikitako azpiegitura berriek edo fluxu turistikoaren eta birmoldatze ekonomikoaren bultzada masiboak eraginda. Indar horiek guztiak gelditzen dira lurraldearen jabe, erre-produzitzeko eta errentagarri bihurtzeko, edo suntsitzeko. Lekualdatzea, etxegabetzea, bidaltzea, birkokatzea eta, horrenbestez, babeslekuaren bilaketa hurbil-hurbil dauden prozesuak dira, etxea –nazioz gairako esperientzia politikoa proiektu zitekeen Europa– “hartuta” dugula begien aurrean ikusita.

*Arkitektura: film mintzairak* zikloan, analisi filmikoaren eta lan-jardunaldien bidez, behin eta berriz azpimarratzen da egokia dela “Europa hartzen” ari diren prozesu ekonomiko eta politiko horiek aztertzea, eta prozesu sinbolikoak, antropologikoak eta estetikoak ere aintzat hartzea. Izan ere, ikus daitekeenaren eta ikusi ezin denaren artean gertatzen diren aldaketak funtsezkoak dira, nola orainaldiaren edozein azterketa egiteko, hala errealitatea eraldatzeko borondate

jakin batean inspiratutako edozein proiektu garatzeko, zer irudika daitekeen eta zer ez erabakitzen duten aukerako baldintzetan.

Komeni da aipatzea gaur egungo ikusgarritasunaren alderdi erabakigarrietako bat hauxe dela: subjektuek jokatzeko duten moduan jokatzeko dutela, ez errealitate jakin bat ezagutzen ez dutelako, baizik eta, arazoak oinarrian nola egituratuta dauden ederki asko jakinda ere, benetan ez *balekite bezala* jokatzeko dutelako. Izan ere, zerbait traumatikoa denean ezin da errealitate bezala onartu, eta orduan errealitatea mamu-itxurako koordenada batzuek sostengatzen dute, ezkutatzeko prozesu batek, irudikapenen, praktiken eta zentzumenen ekoizpenak, betiere botere-harremanak zilegitzeko helburuarekin.

Horiek horrela izanik, neurri handi batean begirada menderatzailea plazaratzea, hedatzea eta ezartzea arautzen duten politika kulturalak eginkizun bikoitza betetzen dute –Miller-ek eta Yúdicek adierazi duten bezala–: Estatu egituratzeko forma moduan eta bizi estiloa egituratzeko sistema gisa, hau da, elementu biopolitiko gisa.

Europaren ideiak, eta, beraz, bertako herritarrenak, “balio europarrak” deitzen direnak ditu oinarrian: demokrazia, askatasuna, tolerantzia, ongizatea... Horiek gaur egungo globalizazioaren unibertsaltasun “errealaren” gaineratik daude, eta “fikzio” lana egiten dute. Fikzio horretan, herritarrenak, proiektu ideologiko erraldoiaren partaide sentitzean, edozein eratako indarkeria onartzeko prest dirudite, balio europar horiek (diotenez) mehatxatzen omen dituzten pertsonen aurka; bide batez, onartu egiten dute haien bizitzak prekarizatzea eta defendatzen omen dituzten eskubi-deak eta balioak haiei gutxitzea, edo areago, kentzea.

Balio europar gisa jotzen diren topikoen multzoa ideologikoki asimilatze prozesu horrek eta hori bera kritikariki gabe onar-

tzeak ematen du herritar izaera. Mugek dute ardura Europako komunitatean sartzeko edo kanporatzeko baldintzak definitzeaz; komunitate hori, era materialean, urbanistikoa eta arkitektonikoa ez ezik, prozesu irudimenezkoen, sinbolikoaren eta semiotikoen bidez ere eraikitzen da.

Orduan, erritualak, zeinuak eta irudiak errenkadan ateratzean eta plazaratzean, berezko estatutua al du kulturak, desberdindu al daiteke kultura salgaiztat jotzetik harago, plusbalio ekonomikoaren ekoizle den kulturatik harago? Zein dira erreferenteak, errepresentazioko erregimenak, orainaldia gauzatzen duten kontakizunak eta iruditeriak? Zer harreman finka dezakegu politika kulturalen, gobernagarritasun neoliberalaren eta lurraldearen eraikuntzaren artean?

Herritar “integratuek” bat egiten duten lehiatzeko espazioa da hiria: kideak uzteko eremuetan eta prekaritate eta zaugarritasun sozialeko eremuetan kokatzen dira kanporatuak, baztertuak, migratzaileak eta ahulduak (Robert Castel). Gune horretan biltzen eta lehiatzen da desberdintasun hori. Izan ere, alde batetik, kapital globalizatua hortxe gauza daiteke politika eta gizarte-mailetan, bere “une hiritarren”. Beste alde batetik, hiriak mesprextatuenean multzo zabala biltzen du barruan: migratzaileak, pobreak, lesbianak eta *queer*-ak. Hirian aurkitzen dute horiek aktore politiko global bihurtzeko jokalekua, hiri handi globalean bereziki.

Aurtengo edizioan Gabriel Villota, Los Flamencos, Andrés Antebi eta Daniel Malet eta Isabell Lorey gonbidatu ditugu. Horien lan-esparru guztietan oinarrituta, praktikak eta ideiak eztabaidatu nahi ditugu, etortzekoa den demokrazia gauzatze erresistentzia-guneak sor daitezke, *etxea hartzearen* esanahia, etsaitasuna izan beharrean, abegi onarentzako gunea irekitzea izan dadin.

## 1. SAIOA

Azaroaren 8a, 9a eta 13a

# Klugeren telebista, edo barietateen ikuskizun elektronikoa

Gabriel Villota

Alexander Kluge (Halberstadt, 1932) errealizadore alemaniarrek telebistako lanetan garatu zuen estetika adibide ona da “atrakzio-zinema” kontzeptuak (Tom Gunning) egungo jendarteen testuinguruan dituen aukerak ulertzeko: era berean hartu du oinordetzan collage modernista eta Raymond Bellour-ek “irudi-artearen” deitu zuenaren testuartekotasun postmoderno bereizgarria; Klugeren telebista ezin hobeto egokitzen da ingurune horri dagokion “fluxu” ideiarra.

Bestalde, gaur egun, irudien eta soinuen fluxu horrek gainezka egin du pantailatik, eta kolonizatu du Internet deitzen den “esfera publiko” mota berri hori; bereziki, produkzio eta kontsumoko arlo batzuk, hala nola egungo benetako “barietate-antzerkia” den YouTubek eta antzeko beste gertakari batzuek irudikatzen dutena.

Hala ere, Klugek, azken lanean –dena barne hartzen duen *Das Kapital* gehiegizkoan (2008, 570’)—, ahalegina egingo du ikus-entzunezko fluxu hori jatorrizko testuinguru zinematografiko primitibora itzultzeko, baina, jakina, edukia nabarmen aldatu da bidean barrena, igaro diren ehun urte luzeetan.

### Gabriel Villota Toyos

Gabriel Villota Toyos Arte Ederretan lizentziaduna eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatetik. Bertan aritzen da lanean, Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasle gisa. Ikertzeko egonaldia hauek egin ditu: University of Nevada (Reno, Basque Studies Program 2002), New York University (2008), Temple University (Philadelphia, 2014) eta Centro de Estudios del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madril, 2015).

Gainera, 90eko hamarkadatik aurrera, artista gisa jarduteaz gain, ikusmen-artei loturiko jarduerak antolatu ditu, eta testuak argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan, arte-katalogoetan eta idatzizko beste hedabide batzuetan. Azken lanen artean, zinemari eta dantzari buruzko testuak nabarmentzen dira: “Incluso cuando estamos quietos nos estamos moviendo,” in *Cadáveres exquisitos. Intervenciones sobre obituarios de periódicos 2001-2014* (Txuspo Poyo, 2015); “A propósito de un eslabón perdido: la (re)aparición de *Assemblage* (Merce Cunningham, Richard Moore, 1968),” in *Ausart*, 4. zk. (Bilbo, 2015eko ekaina) eta “Vindicación de la huella en Merce Cunningham. Danza y registro audiovisual en tres etapas históricas, 1960-1993,” in *Brumaria* (Madril, 2015).

### AZAROAREN 8a, ASTEARTEA

Z Aretoa, Tabakalera

19:00

Aurkezpena Gabriel Villota Toyosekin

20:00

Proiektzioa: *Alexander Kluge telebistako ekoizpenean*

- 🔊 J. B. alemanez, azpituak gaztelaniaz
- 📺 Alexander Klugek sortutako DCTP (Development Company for Television Programmes) telebistako produkzio-etxeak 1988az geroztik kate pribatu nagusientzat (RTL, SAT.1 eta Vox) ekoiztako programen artean egindako hautaketa da.



Alexander Kluge telebistako ekoizpenean

### AZAROAREN 9a, ASTEAZKENA

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

10:00-14:00

Topaketa Gabriel Villotarekin

### AZAROAREN 13a, IGANDEA

Zinema-aretoa, Tabakalera

Proiektzioa: *Noticias de la Antigüedad ideológica: Marx/Eisenstein/El Capital*, Alexander Kluge, Alemania, 2008, 570’

10:00

Lehenengo zatia: *Marx y Eisenstein en la misma casa*, 188’

15:00

Bigarren zatia: *Todas las cosas son personas embrujadas*, 120’

18:00

Hirugarren zatia: *Paradojas de la sociedad del intercambio*, 182’

- 🔊 J. B. alemanez, azpituak gaztelaniaz
- 📺 la bederatzi orduan, Alexander Klugek ahalegina egiten du Sergei Eisensteinen bukatu gabeko proiektua berregiteko: 1927an James Joycerekin topaketa sukartsu bat izan ostean, Karl Marxen *Kapitala* filmatzea. Horrez gain, ahalegina egiten du Marxek gure garaian indarrean dirauela ulertzeko, eta zinema ezagutzako bitarteko kritiko gisa berriz irudikatzeko.

## 2. SAIOA

Azaroaren 9a eta 10a

### Cante tóxico nº III

Los Flamencos

# 2

Los Flamencos taldea *Cantes tóxicos* [Kantu toxikoak] proiektua garatzen ari da azkenaldian: 2012an eraikitako artefaktu bat da, Antonio Machadoren *Juan de Mairena* hark asmatutako koblak egiteko makinaren moduan, neoliberalismoak ezarritako gehiegikeriak kantatzeko, kontatzeko eta erakusteko.

Arte herrikoia, naturalismoaren eta komunikabideen arazoekin kezkatuta, arlo estetikoaren esparrutik bereizi ohi ziren ezagutza- eta praxi-eremuekin lotzeko harremana aldarrikatzen duten esperientzia estetikoaren forma berriak aztertzen dituzte. Euren lanen ardatza aldi berean hurbilago eta askoz ere urrunago dago erreferente "errealista" tradizionaletik.

*Cantes tóxicos* osatzeko materialak dira Youtubeko zaborrontzi izugarritik berreskuratutako artxibo filmikoak, hedabideetatik erreskatatutako albisteak eta festako kantuen artean ahaztutako nota flamenkoak dira. Esan dezakegu *Cantes tóxicos* gure garaiko kontakizun hibridoak direla, *collage* kaleidoskopikoaren modukoak, mundu poetikoaren, flamenkoko praktika performatiboaren, diskurtso kritikoaren eta ikus-entzunezko ekoizpenaren artean biraka, jendearen saminarekin eta haren gainean eraikitako agertoki sozial berria erakusteko.

Los Flamencos Niño de Elche flamenkoko kantariak, Isaías Griñolo artista bisualak eta Antonio Orihuela poetak sortutako

elkarlaneko talde irekia da. Beste artista batzuk ere aritu izan dira lankidetzan bertan, hala nola Enrique Falcón eta David Pielfort poetak. Ondorengo hauetan aurkeztu da *Cantes tóxicos: Sobre capital y territorio 2007-2012*, CAS, Sevilla (2012); *Contra Tápies*, Fundació Antoni Tápies, Bartzelona (2013); *Concreta* (arte aldizkaria); EACC, Castelló (2013); *Gamonal en lucha*, Gamonal auzoa, Burgos (2013); *La noche del apagón*, MACBA, Bartzelona (2014); *Cítric 2016*, *Ateneu Popular de Nou barris*, Bartzelona (2016); *L'art de la Révolte*, Centre Pompidou, París (2016) edo *La réplica infiel*, CA2M, Móstoles, Madrid (2016).



Los Flamencos

### Isaías Griñolo

Isaías Griñolo artista bisuala da. Memoria-, ekologia-, ekonomia-, poesia- eta arte-kontuak hibridatzen dituen proiektuetan egiten du lan. Erakusketa eta zentro hauetan aurkeztu izan ditu bere lanak: *Principio Potosí* (MNCARS, Madril / HKW, Berlin / Museo de Etnografía, La Paz), *Lurpeko Istorioak* (Cristina Enea Fundazioa, Donostia), *Sacer / El martirio de las cosas* (Espacio Santa Clara, Sevilla), *L'art de la Révolte* (Centre Pompidou, París) edo *La réplica infiel* (CA2M, Móstoles, Madrid).

### Antonio Orihuela

Antonio Orihuela irakaslea eta idazlea da. *Voces del Extremo* poesia topaketen koordinatzailea da. Hauek dira poesian egin dituen azken argitalpenetako batzuk: *El amor en los tiempos del despido libre* (Amargord, 2014), *Salirse de la fila* (Amargord, 2015) edo *Palos* (La linterna sorda, 2016). Saiakera-arloan, oster, honelako lanak argitaratu ditu: *Libro de las derrotas* (Oveja Roja, 2008), *Poesía, pop y contracultura en España*, (Berenice, 2013), *La caja verde de Duchamp y otras estampas cifradas* (El Desvelo, 2016).

### AZAROAREN 9a, ASTEAZKENA

Z Aretoa, Tabakalera

19:00

Aurkezpena Isaías Griñolo eta Antonio Orihuelarekin

20:00

Los Flamencosen kontzertu-performantzia: *Cante tóxico nº III*

☒ *Cante tóxico nº III* lanean, herritarren protestaren eta saminaren arrastoak jasotzen dira: goikoek demokrazia nola bahitzen duten ikusten dute, behekoen bizitzak zakarrontzira botatzen dituzten bitartean. Konstituzioko 135. artikularen erreforma (2011ko abuztuaren 28an bi alderdi nagusiek adostutako menderatzeko tresna) eta Herritarren Seguritasunerako Legea (Maiatzaren 15eko 15M mugimenduaren ostean herritarren protestei eusteko Errege Dekretuz *ad hoc* sortutako mozala) erabiliz bildutako kontu zigorgarrien egoerari buruzko bizitza pertsonalen eta iritzi kritikoaren arrastoekin egituratzen da.

### AZAROAREN 10a, OSTEAGUNA

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

10:00-14:00

Topaketa Isaías Griñolo eta Antonio Orihuelarekin



### 3. SAIOA

Azaroaren 10a eta 11

## BCN / LIS: Irentsitako bi hiriren anatomia


Andrés Antebi eta Daniel Malet

# 3

Hiria berrantolatzekeo prozesu neoliberal gisa ulertzen dugu gure garaiko turismoa, sistema teknikoak, eraikitako inguru-neak, naturak eta eguneroko praktikak zeharkatzen dituen, eta, gainera, hiria ekoizteko, ustiatzeko eta kontsumitzeko modu biziak, masiboak eta sofistikatuak dakartzana. Objektu turistikoa ekoizteko lan jarraituan, "kulturalak" erakartzeko faktore eta kontsumi daitekeen "benetakotasun" gisa duen eginkizuna ardatz bihurtzen da; eta motibazio-profil ugari bistarazten ditu bisitarien artean. Horrela, turismoak –gero eta konplexuagoa eta aldagarriagoa izanik– jatorri eta helmuga ugaritak ugaritara garraiatzen eta lekualdatzen ditu jende-multzoak, eta bertan sartzen diren eragile sozial guztiek garatzen dituzten diskurtsoak, jarduerak eta praktikak ere bai. Mugimendu horiek kudeatzeko lanean,

turismoaren jardunbide "industrialaren" zati handi bat kontrolatzeko asmoa duten eragile ekonomikoak eta instituzionalak kokatzen dira: irabaziak jasotzen dituzte, lurralderik masifikatuenean gertatzen diren ondorio sozial larri gehienak aintzat hartu gabe. Bartzelonari eta Lisboari dagokienez, egiaz irentsitako hiriak dira nabarmen, bai gerta ala gerta irabaziak nahi dituztenen diruzalekeriagatik, bai eta, sustatzaile turistikoek proiektatuta, hiriaren gorputzean zehar dabiltzan bisitarien irrika aseezina elikatzen duten espazioak, irudiak eta iruditeriak era masiboan kontsumitzeagatik ere.

Andrés Antebi eta Daniel Malet Europako zenbait hiriburutan turismoak duen eragina jorratzen duen *Turismografias* ikerlari-sare hasiberriko kideak dira.



*Cannibal Tours*

### Andrés Antebi Arnó

Andrés Antebi Arnó antropologoa eta dokumental egilea da. Observatorio de la Vida Quotidiana (OVQ) koordinatzen du; Bartzelonan hiri-historia eta antropologiako diziplina arteko proiektuetan espezializatuta, ikerlari sozialek eta artista bisualek osatutako kolektiboa da. Argazkilaritza, historia eta antropologia lotzen dituzten hainbat obra argitaratu ditu, hala nola *Cops de gent. Crònica gràfica de las mobilitacions ciutadanes a Barcelona; Trágica, Roja y Gloriosa. Una semana de 1909; Repòrters Gràfics. Barcelona 1900-1939*. Erakusketen komisarioa izan da; esate baterako, lan honena: *Ikunde. Barcelona, metròpoli colonial o BCN 92: visita de obras*.

### Daniel Malet Calvo

Daniel Malet Calvo doktorea da Antropologia Sozialean. Bartzelonan, Lisboan eta Cabo Verden lan egin du ikerkuntza etnografikoko hainbat proiektu garatzen; argitalpen zientifiko batzuk eratorri izan dira proiektu horietatik. GRECS (Grup de Recerca sobre Exclusió i Control Socials) eta ICA (Institut Català d'Antropologia) ekimenetako kidea da, eta gaur egun ikerketa bat egiten ari da Erasmuseko ikasleek Lisboa hirian duten eraginari buruz, CIES-IUL zentroan (Centro de Investigação e Estudos de Sociologia - Instituto Universitário de Lisboa).

### AZAROAREN 10a, OSTEGUNA

Z Aretoa, Tabakalera

19:00

Aurkezpena Andrés Antebi eta Daniel Maletekin

20:00

Proiektzioa: *Cannibal Tours*, Dennis O'Rourke, Australia, 1988, 72'

🔊 J.B. ingelesez, azpituuluak gaztelaniaz  
📺 Papua Ginea Berriko Sepik ibaian zehar herrixka batzuk bisitatzeko dira ibilbide turistiko batean. Protagonisten artean, alde batetik, lehen munduko turistak daude, irrikaz artisaunak erosteko, zeremonia tradizioaletan lekuko izateko eta "primitiboak" argazkiak ateratzeko. Beste alde batetik, papuarrak daude, gogaituta turistekin prezio-tratuan ibili beharrekin, baina, gogoz kontra bada ere, prest euren argazkiak ateratzen uzteko eta bezeroen nahiak betetzeko. Gogoeta azidoa anfitrioien eta gonbidatuen arteko topaketan izandako esperientzia turistikoari, kanibalismoari eta *who is who* dinamikari buruz.

### AZAROAREN 11, OSTIRALA

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

10:00-14:00

Topaketa Andrés Antebirekin eta Daniel Maletekin

#### 4. SAIOA

Azaroaren 28a eta 29a

## Demokrazia presentista. Zein neurritan ari da beste demokrazia mota hau Europara iristen

Isabell Lorey

# 4

Egungo Europan berriz hasi dira demokraziaren "balioak" defendatzen, haren etsaien aurka, eta, bitartean, gerrak jartzen dira abian estatuaren forma sendotzeko. Hustutako demokrazia liberala bere burua berriz legitimatzen saiatzen ari da. Hala ere, ustez hautabiderik ez duen hustutako demokrazia horrek zera baizik ez du agerian jartzen, salbuespen-estatua normalizatuz: gobernu-molde autoritario bat, gizarteko segurtasunik ezaren bidez diharduena. Dena dela, gorrotoaren eta segurtasunaren diskurtsoetara jotzeko itzulera horren aurrean, Europan gero eta fidelago eutsi nahi zaio demokraziaren izen zaha-

rrari, eta,aldi berean, haren historiatic ere erreskatatu nahi da. Mugimendu demokratiko berriak sortu dira, bestelako berpizte demokratiko baten aldekoak; demokrazia presentistaren praktikan gaurkotutako orainaldi luzatu baten aldekoak: homogeneizatutako kalkulabilitaterik gabe, kalkulaezin eta heterogeneo ugariak modu erradikalean sartuta –gero eta mugagabeagoa den demokrazia. Alabaina, bidean al dago, Jacques Derridak proposatu zuen moduan? Edo etorkizunaren nozio oro ahaztu behar al dugu, demokraziaren alderdi presentistaz gogoeta egiteko?



Heremakono

#### Isabell Lorey

Isabell Lorey Kasseleko unibertsitateko irakaslea da: feminismoari eta teoria politikoari eta postkolonialari buruzko eskolak eman izan ditu Basilea, Berlin eta Vienako unibertsitateetan. *European Institute for Progressive Cultural Policies*eko (eipcp) kidea da, eta *Transversal texts* serieko editore-kontseiluko partaidea. Prekarietatea, mugimendu sozialak eta demokrazia gaitzat hartuta, nazioarteko hainbat aldizkaritan argitaratu ditu idatziak. Orain dela gutxi gaztelaniara itzuli dute haren azken lana: *Estado de inseguridad. Gobernar la precariedad* (Traficantes de Sueños, 2016), Judith Butler-en hitzaurrearekin.



Heremakono

#### AZAROAREN 28a, ASTELEHENA

Z Aretoa, Tabakalera

19:00

Aurkezpena Isabell Loreyrek

20:00

Proiektzioa: *Heremakono*, Abderrahmane Sissako, Mauritania, 2002, 95'

🔊 J.B. frantsesez, azpitoluak gaztelaniaz  
📺 Abdallah mutil gazteak ama berreskuratzen du Nouadhiboun, Europara bidaiatzeko zain dagoela. Erbesteko leku horretan, ez du hizkuntza eza gutzen, eta inguruan duen unibertsoa deszifratzen saiatzen da: bera limurtu nahian dabilen Nana emakume gazte sentsuala, berak bezala abiatzearekin amets egiten duen Makan, elektrikari bihurtutako Maata arrantzale zaharra, tokiko dialektoa erakutsiz bakardadetik irteten lagunduko dion Khatra, Maataren ikastun gazte eta ernea. Komunitate horiek elkarrekin gurutzatzen eta bereizten dira, begirada zerumugan finko, zorientasun hipotetiko baten zain.

#### AZAROAREN 29a, ASTEARTEA

Kaxilda liburudenda

10:00-13:00

Topaketa Isabell Loreyrek

**1** Klugeren telebista, edo bariatateen ikuskizun elektronikoa ⓘ 4. orrialdea

**AZAROAREN 8a, ASTEARTEA**

Z Aretoa, Tabakalera

**19:00** Aurkezpena Gabriel Villotarekin

**20:00** Proiektzioa: *Alexander Kluge telebistako ekoizpenean*

**AZAROAREN 9a, ASTEAZKENA**

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

**10:00** Topaketa Gabriel Villotarekin

**AZAROAREN 13a, IGANDEA**

Zinema-aretoa, Tabakalera

**10:00, 15:00, 18:00** Proiektzioa: *Noticias de la Antigüedad ideológica:*

*Marx/Eisenstein/El Capital*, Alexander Kluge, Alemania, 2008, 570'

**2** Cante tóxico nº III ⓘ 6. orrialdea

**AZAROAREN 9a, ASTEAZKENA**

Z Aretoa, Tabakalera

**19:00** Aurkezpena Isaias Griñolo eta Antonio Orihuelarekin

**20:00** Los Flamencosen kontzertu-performancea: *Cante tóxico nº III*

**AZAROAREN 10a, OSTEGUNA**

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

**10:00** Topaketa Isaias Griñolo eta Antonio Orihuelarekin

**3** BCN / LIS: Irentsitako bi hiriren anatomia ⓘ 8. orrialdea

**AZAROAREN 10a, OSTEGUNA**

Z Aretoa, Tabakalera

**19:00** Aurkezpena Andrés Antebi eta Daniel Maletekin

**20:00** Proiektzioa: *Cannibal Tours*, Dennis O'Rourke, Australia, 1988, 72'

**AZAROAREN 11, OSTIRALA**

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

**10:00** Topaketa Andrés Antebirekin eta Daniel Maletekin

**4** Demokrazia presentista. Zein neurritan ari da beste demokrazia mota hau Europara iristen ⓘ 10. orrialdea

**AZAROAREN 28a, ASTELEHENA**

Z Aretoa, Tabakalera

**19:00** Aurkezpena Isabell Loreyarekin

**20:00** Proiektzioa: *Heremakono*, Abderrahmane Sissako, Mauritania, 2002, 95'

**AZAROAREN 29a, ASTEARTEA**

Kaxilda liburudenda

**10:00-13:00** Topaketa Isabell Loreyarekin

**1** La televisión de Kluge, o el espectáculo electrónico de variedades ⓘ Página 16

**MARTES 8 DE NOVIEMBRE**

Sala Z, Tabakalera

**19.00** Presentación a cargo de Gabriel Villota

**20.00** Proyección: *Alexander Kluge en la producción televisiva*

**MIÉRCOLES 9 DE NOVIEMBRE**

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

**10.00** Encuentro con Gabriel Villota

**DOMINGO 13 DE NOVIEMBRE**

Sala de cine, Tabakalera

**10:00, 15:00, 18:00** Proyección: *Noticias de la Antigüedad ideológica:*

*Marx/Eisenstein/El Capital*, Alexander Kluge, Alemania, 2008, 570'

**2** Cante tóxico nº III ⓘ Página 18

**MIÉRCOLES 9 DE NOVIEMBRE**

Sala Z, Tabakalera

**19.00** Presentación a cargo de Isaias Griñolo, Río Muten y Antonio Orihuela

**20.00** Concierto-performance de Los Flamencos: *Cante tóxico nº III*

**JUEVES 10 DE NOVIEMBRE**

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

**10.00** Encuentro con Isaias Griñolo y Antonio Orihuela

**3** BCN / LIS: Anatomía de dos ciudades devoradas ⓘ Página 20

**JUEVES 10 DE NOVIEMBRE**

Sala Z, Tabakalera

**19.00** Presentación a cargo de Andrés Antebi y Daniel Malet

**20.00** Proyección: *Cannibal Tours*, Dennis O'Rourke, Australia, 1988, 72'

**VIERNES 11 DE NOVIEMBRE**

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

**10.00** Encuentro con Andrés Antebi y Daniel Malet

**4** Democracia presentista. Hasta qué punto está llegando a Europa esta otra democracia ⓘ Página 22

**LUNES 28 DE NOVIEMBRE**

Sala Z, Tabakalera

**19.00** Presentación a cargo de Isabell Lorey

**20.00** Proyección: *Heremakono*, Abderrahmane Sissako, Mauritania, 2002, 95'

**MARTES 29 DE NOVIEMBRE**

Librería Kaxilda

**10.00** Encuentro con Isabell Lorey



# Arquitectura: lenguajes fílmicos

Europa tomada

*Arquitectura: lenguajes fílmicos* es un ciclo anual de conferencias, proyecciones y talleres que se propone indagar sobre una de las grandes categorías de nuestro tiempo: *la ciudad*, que junto a otras como *migración*, *economía*, *austeridad*, *desigualdad*, *cambio climático*... se ha vuelto tan inabarcable que, en palabras de Saskia Sassen "...somos incapaces de capturar todo lo negativo que está pasando."

Desde hace años, este programa viene produciendo una serie de encuentros con pensadores y pensadoras locales e internacionales –que se acompañan de proyecciones de películas que estos mismos autores proponen–, con la intención de generar un acercamiento reflexivo a las políticas urbanas y al análisis territorial geográfico.

Este año comenzamos nuestra reflexión a partir de *Casa tomada*, aquel cuento de Julio Cortázar en el que Irene y su hermano sienten cómo la casa familiar está siendo invadida por fuerzas que no son capaces de visualizar, cuya naturaleza se les escapa, pero que efectivamente les van desalojando de su hogar hasta ser definitivamente expulsados y arrojados a la calle. El miedo y la angustia invaden el relato, afecciones que permiten establecer múltiples analogías con el momento presente que está atravesando Europa. El espacio en el que se daba por hecho que existían derechos, garantías y procedimientos que implicaban un horizonte de tranquilidad está siendo seriamente amenazado por distintas fuerzas que, al contrario que en el cuento de Cortázar, son identificables, perceptibles a la luz del día. Son los espectros que deambulan

en los telediarios, en las crónicas políticas, en la literatura, el arte y el pensamiento de, al menos, las dos últimas décadas. Son las políticas neoliberales de austeridad y precarización, en una deriva depredadora tras la "operación crisis" que ha acompañado la extensión del totalitarismo económico. Es el control securitario internacional que se alza en contra de las migraciones; el blindaje inmunitario de Europa ante una contracara violenta en forma de guerras y terrorismos, que ha desvelado el sustrato racista y colonial del "viejo continente". Es, también, la expulsión de familias y poblaciones enteras de sus territorios a causa de catástrofes ecológicas, de la construcción de nuevas infraestructuras o del impulso masivo de flujos turísticos y procesos de reconversión económica. Todas estas fuerzas se adueñan del territorio para re-productirlo y rentabilizarlo, o destruirlo. El desplazamiento, el desalojo, la expulsión, la reubicación y por lo tanto la búsqueda de refugio se vuelven inminentes ante la evidencia de que tenemos la casa –la Europa en la que era posible proyectar una experiencia política supranacional– "tomada".

*Arquitectura: lenguajes fílmicos*, a través del análisis fílmico y jornadas de trabajo, insiste en la pertinencia de estudiar no solo estos procesos económicos y políticos que están "tomando Europa", sino también los simbólicos, antropológicos y estéticos, puesto que los cambios que se dan entre lo que es visible y lo que no es visible, en las condiciones de posibilidad que determinan qué es imaginable y qué no lo es, resultan fundamentales para

cualquier análisis del presente y para cualquier proyecto inspirado en cierta voluntad de transformación de la realidad.

Cabe señalar que uno de los aspectos decisivos del actual régimen de visualidad es que los sujetos actúan del modo en el que actúan no porque ignoren una realidad determinada, sino porque a pesar de conocer sobradamente la configuración básica de los problemas proceden como si en realidad *no lo supieran*. Y es que cuando algo resulta demasiado traumático no se puede aceptar como realidad, y esta pasa a ser sostenida por ciertas coordenadas fantasmáticas, por un proceso de ocultamiento, producción de representaciones, prácticas y sentidos, cuya función es la legitimación de relaciones de poder.

Así pues, las políticas culturales, que en buena medida regulan la circulación, difusión e implantación de la mirada dominante, cumplen –como han señalado Miller y Yúdice– un doble papel: como forma de estructuración del Estado y como sistema de estructuración del estilo de vida, es decir, como elemento biopolítico.

La idea de Europa, y por consiguiente de su ciudadanía, se sustenta sobre los llamados "valores europeos": democracia, libertad, tolerancia, bienestar... que se superponen sobre la universalidad "real" de la globalización actual, y actúan como una "ficción" en la que la ciudadanía, al sentirse parte de un proyecto ideológico gigantesco, parece dispuesta a admitir cualquier tipo de violencia sobre aquellos que (dicen) la amenazan, aceptando la precarización de sus vidas y la reducción, cuando no supresión, de los derechos y valores que dicen defender.

Este proceso de asimilación ideológica de un conjunto de tópicos que se consideran inscritos como valores europeos y su crítica aceptación es lo que otorga la consideración de ciudadanía, siendo las fronte-

ras las encargadas de definir la inclusión o la exclusión en una comunidad europea que se edifica no solo de una forma material, urbanística y arquitectónica, sino también a través de procesos imaginarios, simbólicos y semióticos.

Entonces, en su procesión y circulación de rituales, signos e imágenes ¿tiene la cultura un estatuto propio o diferenciable más allá de la cultura como mercancía, de la cultura como productora de plusvalor económico? ¿Cuáles son los referentes, los regímenes de representación, los relatos y los imaginarios que configuran el presente? ¿Qué relaciones podemos establecer entre las políticas culturales, la gubernamentalidad neoliberal y la construcción del territorio?

La ciudad es el espacio disputado donde confluye la ciudadanía "integrada": excluidas, marginados, migrantes y precarias que se sitúan tanto en las zonas de desafiliación como en las zonas de precariedad y vulnerabilidad social (Robert Castel). Es el espacio donde esa desigualdad se aglutina y se confronta. Por una parte, porque es donde el capital globalizado, en su "momento urbano", se vuelve concreto política y socialmente. Por otra, porque la ciudad reúne una vasta aglomeración de las más desfavorecidas: migrantes, pobres, lesbianas y *queers* que encuentran en la ciudad, especialmente en la gran ciudad global, el espacio para devenir actores políticos.

En la edición de este año hemos invitado a Gabriel Villota, Los Flamencos, Andrés Antebi y Daniel Malet e Isabell Lorey, con quienes nos interesa discutir las prácticas e ideas que desde sus distintos ámbitos de trabajo proponen desarrollar para emprender un éxodo intencional que construya espacios de resistencia desde los que configurar una democracia por venir, donde *tomar la casa* no signifique hostilidad sino la apertura del espacio de la hospitalidad.



## 1ª SESIÓN

8, 9 y 13 de noviembre

# La televisión de Kluge, o el espectáculo electrónico de variedades

Gabriel Villota

La estética desarrollada por el realizador alemán Alexander Kluge (Halberstadt, 1932) en sus trabajos para televisión constituye un buen ejemplo para entender las posibilidades que el concepto de “cine de atracciones” (Tom Gunning) tiene en el contexto de nuestras sociedades contemporáneas: heredera por igual del *collage* modernista como de la intertextualidad postmoderna característica de aquello que Raymond Bellour llamara “entre-imágenes”; la televisión de Kluge se adapta perfectamente a la idea de “flujo” propia de este medio.

Flujo de imágenes y sonidos que, por otro lado, vemos que hoy en día ha desbordado la pantalla para acabar colonizando esa suerte de nueva “esfera pública” llamada Internet; y en particular ámbitos de producción y consumo como el que representan fenómenos como YouTube, verdadero “teatro de variedades” contemporáneo.

Kluge, sin embargo, tratará en su último trabajo —el omniabarcante y excesivo *Das Kapital* (2008, 570’)—, de devolver ese flujo audiovisual al contexto del cinematógrafo primitivo del que originalmente procediera, aunque obviamente el contenido haya cambiado notablemente a lo largo del camino de los más de cien años pasados.

### Gabriel Villota Toyos

Licenciado en Bellas Artes y doctor en Comunicación Audiovisual por la Universidad del País Vasco, donde actualmente ejerce como profesor del Departamento de Comunicación Audiovisual y Publicidad. Ha realizado estancias de investigación en la University of Nevada (Reno, Basque Studies Program 2002), New York University (2008), Temple University (Philadelphia, 2014) y en el Centro de Estudios del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (Madrid, 2015).

Además, desde comienzos de los años 90 ha trabajado como artista y organizador de actividades en relación a las artes visuales y ha publicado en numerosas revistas especializadas, catálogos de arte y otros medios escritos. Entre sus últimos trabajos destacan textos sobre cine y danza: “Incluso cuando estamos quietos nos estamos moviendo”, en *Cadáveres exquisitos. Intervenciones sobre obituarios de periódicos 2001-2014* (Txuspo Poyo, 2015); “A propósito de un eslabón perdido: la (re)aparición de *Assemblage* (Merce Cunningham, Richard Moore, 1968)”, en *Ausart* nº 4 (Bilbao, junio de 2015) y “Vindicación de la huella en Merce Cunningham. Danza y registro audiovisual en tres etapas históricas, 1960-1993”, en *Brumaria* (Madrid, 2015).

### MARTES 8 DE NOVIEMBRE

Sala Z, Tabakalera

19.00

Presentación a cargo de Gabriel Villota (euskera)

20.00

Proyección: *Alexander Kluge en la producción televisiva*

- 🔊 V.O. en alemán, subtítulos en castellano
- 📺 Una selección de imágenes de los programas que la productora de televisión DCTP (Development Company for Television Programmes), fundada por Alexander Kluge, produjo para las principales cadenas privadas de televisión (RTL, SAT.1 y Vox) a partir de 1988.



Alexander Kluge en la producción televisiva

### MIÉRCOLES 9 DE NOVIEMBRE

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

10.00-14.00

Encuentro con Gabriel Villota

### DOMINGO 13 DE NOVIEMBRE

Sala de cine, Tabakalera

Proyección: *Noticias de la Antigüedad ideológica: Marx/Eisenstein/El Capital*, Alexander Kluge, Alemania, 2008, 570’

10:00

Primera parte: *Marx y Eisenstein en la misma casa*, 188’

15:00

Segunda parte: *Todas las cosas son personas embrujadas*, 120’

18:00

Tercera parte: *Paradojas de la sociedad del intercambio*, 182’

- 🔊 V.O. en alemán, subtítulos en castellano
- 📺 Durante casi nueve horas, Alexander Kluge trata de reconstruir el proyecto inacabado de Sergei Eisenstein de rodar *El Capital* de Karl Marx tras un febril encuentro con James Joyce en 1927. Es también un intento de entender la vigencia de Marx en nuestro tiempo, de volver a concebir el cine como un medio crítico y de conocimiento.

## 2ª SESIÓN

9 y 10 de noviembre

### Cante tóxico nº III

Los Flamencos

# 2

Los Flamencos vienen desarrollando el proyecto *Cantes tóxicos*, un artefacto construido en 2012 a la manera de la máquina de trovar ideada por el *Juan de Mairena* de Antonio Machado para cantar, contar y mostrar los desmanes impuestos por el neoliberalismo.

Preocupados por los problemas del arte popular, el naturalismo o los medios de comunicación, indagan en nuevas formas de experiencia estética que reclaman una relación vinculante con aquellas áreas de conocimiento y praxis que tradicionalmente habían sido diferenciadas de la esfera de lo estético. El núcleo sobre el que giran sus trabajos es a la vez más próximo y mucho más lejano al referente “realista” tradicional.

Los materiales con los que están montados sus *Cantes tóxicos* son archivos filmicos recuperados del inmenso cubo de la basura que es Youtube, noticias rescatadas de los medios y notas flamencas olvidadas entre los cantes festeros. Podríamos decir que los *Cantes tóxicos* son relatos híbridos de nuestros días, a la manera de *collages* caleidoscópicos, que giran entre el mundo poético, la práctica performativa del flamenco, el discurso crítico y la producción audiovisual, para mostrar el nuevo escenario social construido con y sobre el dolor de la gente.

Los Flamencos es un grupo de trabajo colaborativo abierto creado por Niño de

Elche –cantaor–, Isaías Griñolo –artista visual– y Antonio Orihuela –poeta–. En él también han colaborado otros artistas, como los poetas Enrique Falcón y David Pielfort. Los *Cantes tóxicos* se han presentado en *Sobre capital y territorio 2007-2012*, CAS, Sevilla (2012); *Contra Tàpies*, Fundació Antoni Tàpies, Barcelona (2013); *Concreta* (revista de arte); EACC, Castelló (2013); *Gamonal en Lucha*, Barrio de Gamonal, Burgos (2013); *La noche del apagón*, MACBA, Barcelona (2014); *Cítric 2016*, Ateneu Popular de Nou barris, Barcelona (2016); *L'art de la Révolte*, Centre Pompidou, París (2016) y *La réplica infiel*, CA2M, Móstoles, Madrid (2016).



Los Flamencos

#### Isaías Griñolo

Artista visual, trabaja en proyectos donde hibrida asuntos de memoria, ecología, economía, poesía y arte. Sus trabajos se han presentado en exposiciones y centros como *Principio Potosí* (MNCARS, Madrid / HKW, Berlín / Museo de Etnografía, La Paz), *Lurpeko Istorioak* (Fundación Cristina Enea, Donostia), *Sacer / El martirio de las cosas* (Espacio Santa Clara, Sevilla), *L'art de la Révolte* (Centre Pompidou, París) o muy recientemente *La réplica infiel* (CA2M, Móstoles, Madrid).

#### Antonio Orihuela

Profesor y escritor, coordinador de los encuentros de poesía *Voces del Extremo*. Algunas de sus últimas publicaciones en poesía son *El amor en los tiempos del despido libre* (Amargord, 2014), *Salirse de la fila* (Amargord, 2015) o *Palos* (La linterna sorda, 2016). En ensayo ha publicado trabajos como el *Libro de las derrotas* (Oveja Roja, 2008), *Poesía, pop y contracultura en España*, (Berenice, 2013), *La caja verde de Duchamp* y otras estampas cifradas (El Desvelo, 2016).

#### MIÉRCOLES 9 DE NOVIEMBRE

Sala Z, Tabakalera

19.00

Presentación a cargo de Isaías Griñolo y Antonio Orihuela

20.00

Concierto-performance de Los Flamencos: *Cante tóxico nº III*

El *Cante tóxico nº III* recoge las huellas de la protesta y el dolor de la población que ve cómo los de arriba secuestran la democracia mientras tiran las vidas de los de abajo a la basura. Se articula con trazas de vida personal y juicios críticos sobre el estado de las cosas punibles comprendidos entre la Reforma del Artículo 135 de la Constitución (instrumento de sometimiento acordado por el bipartidismo el 28 de agosto de 2011 para satisfacer a la Troika), y la Ley de Seguridad Ciudadana (mordaza creada *ad hoc* por Real Decreto para contener las protestas ciudadanas post 15M).

#### JUEVES 10 DE NOVIEMBRE

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

10.00-14.00

Encuentro con Isaías Griñolo y Antonio Orihuela

### 3ª SESIÓN

10 y 11 de noviembre

## BCN / LIS: Anatomía de dos ciudades devoradas

Andrés Antebi y Daniel Malet

# 3

Entendemos el turismo contemporáneo como un proceso de reorganización neoliberal de lo urbano que atraviesa sistemas técnicos, entornos construidos, naturalezas y prácticas cotidianas, y que además supone modos intensos, masivos y sofisticados de producir, explotar y consumir la ciudad. En el trabajo continuo de producción del objeto turístico, el papel de la "cultura" como factor de atracción y como "autenticidad" consumible se vuelve central, revelando multitud de perfiles motivacionales entre los visitantes. Así, el turismo –de creciente complejidad y mutabilidad– no solo implica el transporte y desplazamiento de contingentes humanos desde y hacia una amplia variedad de orígenes y destinos, sino también los discursos, las actividades y las prácticas desarrolladas por todos los actores sociales implicados. En la gestión de estos movimientos, se

ubican actores económicos e institucionales que tratan de controlar gran parte del funcionamiento "industrial" del turismo, recogiendo los beneficios y desatendiendo la mayor parte de las graves consecuencias sociales que se producen en los territorios más masificados. Los casos de Barcelona y Lisboa se revelan como auténticas ciudades devoradas, tanto por la codicia de aquellos que buscan beneficios a toda costa, como por el consumo masivo de espacios, imágenes e imaginarios que, proyectados por los promotores turísticos, alimentan el hambre insaciable de los visitantes que recorren el cuerpo de la ciudad.

Andrés Antebi y Daniel Malet son miembros de *Turismografías*, una incipiente red de investigadores que trabaja sobre el impacto del turismo en diversas capitales europeas.



*Cannibal Tours*

### Andrés Antebi Arnó

Antropólogo y documentalista, coordina el Observatorio de la Vida Quotidiana (OVQ), colectivo formado por investigadores sociales y artistas visuales especializado en proyectos transdisciplinares de historia y antropología urbana en Barcelona. Ha publicado diversas obras que vinculan la fotografía, historia y antropología como *Cops de gent. Crònica gràfica de las mobilitzacions ciutadanes a Barcelona; Trágica, Roja y Gloriosa. Una semana de 1909; Repòrters Gràfics. Barcelona 1900-1939*. Ha comisariado exposiciones como *Ikunde. Barcelona, metròpoli colonial* o *BCN 92: visita de obras*.

### Daniel Malet Calvo

Doctor en Antropología Social, ha trabajado en Barcelona, Lisboa y Cabo Verde desarrollando diversos proyectos de investigación etnográfica, de los que se han derivado varias publicaciones científicas. Miembro del GRECS (Grup de Recerca sobre Exclúsio i Control Socials) y del ICA (Institut Catalán de Antropologia) se encuentra actualmente realizando una investigación sobre el impacto de los estudiantes Erasmus en la ciudad de Lisboa, en el CIES-IUL (Centro de Investigaçã e Estudos de Sociologia - Instituto Universitário de Lisboa).

### JUEVES 10 DE NOVIEMBRE

Sala Z, Tabakalera

#### 19.00

Presentación a cargo de Andrés Antebi y Daniel Malet

#### 20.00

Proyección: *Cannibal Tours*, Dennis O'Rourke, Australia, 1988, 72'

- 🔊 V.O. inglés, subtítulos en castellano
- 📺 Un crucero turístico recorre distintas aldeas a lo largo del río Sepik en Papúa Nueva Guinea. Los protagonistas son, por un lado, los turistas del primer mundo ansiosos por comprar artesanías, ser testigos de ceremonias tradicionales y fotografiar a los "primitivos." Por el otro, los papuanos, molestos por el regateo de los turistas pero dispuestos, aunque de mala gana, a dejarse fotografiar cumpliendo los deseos de sus clientes. Una ácida reflexión sobre experiencia turística, canibalismo y el *who is who*, en el encuentro entre anfitriones e invitados.

### VIERNES 11 DE NOVIEMBRE

Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea

#### 10.00-14.00

Encuentro con Andrés Antebi y Daniel Malet



## 4ª SESIÓN

28 y 29 de noviembre

# Democracia presentista. Hasta qué punto está llegando a Europa esta otra democracia

Isabell Lorey

# 4

En la Europa actual vuelven a defenderse los “valores” de la democracia contra sus enemigos mientras se emprenden guerras para la consolidación de la forma Estado. La democracia liberal vaciada intenta re-legitimarse. Sin embargo, esta forma de democracia supuestamente carente de alternativas tan solo pone de manifiesto, mediante la normalización del estado de excepción, una forma de gobierno autoritaria que opera a través de la inseguridad social. No obstante, contra ese retorno a los discursos del odio y de la seguridad, vemos cómo en Europa se quiere cada vez más permanecer fieles al viejo nombre

de la democracia, rescatándolo al mismo tiempo de su propia historia. Han surgido nuevos movimientos democráticos que apuestan por otro tipo de movimiento de resurgimiento democrático; por un presente expandido, actualizado en la práctica de la democracia presentista: sin calculabilidad homogeneizada, con una inclusión radical de los muchos incalculables y heterogéneos —una democracia crecientemente ilimitada. Ahora bien, ¿está en camino, como propusiera Jacques Derrida? ¿O hemos de despedirnos de toda noción de futuro para poder pensar la dimensión presentista de la democracia?



Heremakono

## Isabell Lorey

Profesora en la Universidad de Kassel, ha dado clases de feminismo, teoría política y postcolonial en las universidades de Basilea, Berlín y Viena. Miembro del *European Institute for Progressive Cultural Policies* (eicpp), forma parte del consejo editorial de la serie transversal texts. Ha publicado sobre precariedad, movimientos sociales y democracia en distintas revistas internacionales. Recientemente ha sido traducido al castellano su último trabajo: *Estado de inseguridad. Gobernar la precariedad* (Traficantes de Sueños, 2016), prologado por Judith Butler.



Heremakono

## LUNES 28 DE NOVIEMBRE

Sala Z, Tabakalera

19.00

Presentación a cargo de Isabell Lorey

20.00

Proyección: *Heremakono*, Abderrahmane Sissako, Mauritania, 2002, 95'


🔊 V.O. en francés, subtítulos en castellano  
📺 Abdallah, un joven muchacho, recupera a su madre en Nouadhibou, a la espera de su viaje hacia Europa. En ese lugar de exilio del que no comprende el idioma, trata de descifrar el universo que le rodea: Nana, una joven mujer sensual que busca seducirle, Makan que sueña como él con partir, Maata, un viejo pescador reconvertido en electricista, su joven y despierto aprendiz Khatra, que le ayudará a salir de su aislamiento enseñándole el dialecto local. Estas comunidades se cruzan y separan, la mirada fija en el horizonte, a la espera de una hipotética felicidad.

## MARTES 29 DE NOVIEMBRE

Librería Kaxilda

10.00-13.00

Encuentro con Isabell Lorey





**ARKITEKTURA: FILM MINTZAIK** Cristina Enea Fundazioak, Donostia 2016ko

Europako Kultur Hiriburu Fundazioak eta Tabakalera antolatuta eta ko-produzitu dute, BNV Produccionesekin elkarlanean.

**ARQUITECTURA: LENGUAJES FÍLMICOS** es un proyecto organizado y co-producido por

Fundación Cristina Enea, Fundación San Sebastián 2016 y Tabakalera, en colaboración con BNV Producciones

**Proiektuaren eta programaren kontzeptualizazioa / Conceptualización del proyecto y programa:**

Oier Etxeberria (Tabakalera), Lidia Montesinos (Fundación Cristina Enea) y Joaquín Vázquez (BNV Producciones).

**Koordinazioa / Coordinación:**

Fundación Cristina Enea Fundazioa / Tabakalera

**Diseinu grafikoa / Diseño gráfico:**

Joseba Roldán

**Testuak / Textos:**

Oier Etxeberria/Lidia Montesinos/Joaquín Vázquez, Gabriel Villota, Los Flamencos, Andrés Antebi, Daniel Malet, Isabell Lorey

**Itzulpenak / Traducciones:**

Irene Hurtado (euskera), Raúl Sánchez Cedillo (alemán)

**Testuen berrikustea eta zuzenketak / Revisión y corrección de textos:**

Manuel Prados (castellano), XXXXXXXXXXXXXXXX (euskera)

**Impresión:**

Gráficas Michelena

**Antolatzaileen izenean, eskerrik asko honako erakunde eta particular hauei, beren lankidetzagatik /**

**La organización agradece la colaboración de las siguientes entidades y particulares:**

Isaías Griñolo, Alexander Kluge, Dennis O'Rourke, Abderrahmane Sissako, Gerald Rauning, Felisa Romero, Esteban Zamora, Kaxilda liburudenda, Camerawork Pty Limited (*Cannibal Tours*), Celluloid Dreams (*Heremakono*)

Antolatzaileak / Organizan:



DSS 2016 EU



Laguntzaileak / Colaboradores:



**Fundación Cristina Enea Fundazioa**  
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66  
20012 Donostia-San Sebastián  
[www.cristinaenea.org](http://www.cristinaenea.org)

**Tabakalera**  
Mandasko Dukearen Pasealekua, 32  
20012 Donostia-San Sebastián  
[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)

**Kaxilda Liburudenda**  
Arroka Kalea, 2  
20006 Donostia-San Sebastián